

KONTUEN BATZORDE ZENTSOREAREN TXOSTENA EH BILDU FEDERAZIOA – 2020KO EKITALDIA

EH BILDU Federazioaren indarreko estatutuen 25. artikulua kontuen batzorde zentsoari ematen dio kontabilitatearen kontrola eta ikuskapena, EH Bilduren baliabide ekonomikoen eta ondare-baliabideen erabilera egokia eta gobernu-organoei egiten dituzten eduki ekonomikoko egintzen estatutu-legezkotasuna bermatzeko ahalmena.

Era berean, uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoak, alderdi politikoen finantzaketari buruzkoak, honako hau ezartzen du 15. artikuluan:

"Alderdi politikoek barne-kontrolerako sistema bat ezarri behar dute, eduki ekonomikoko eskubideak eta betebeharrak sortzen dituzten egintza eta dokumentu guztien kontu-hartze eta kontabilizazio egokiak bermatzen dituen beren estatutuen arabera. Auditoretza horren ondoriozko txostena Kontuen Auzitegiari aurkeztu beharreko dokumentazioari erantsiko zaio"

Horregatik guztiatik, 8/2007 Legea eta EH BILDU Federazioaren estatutuen 25. artikulua betez, 2020ko ekitaldiko kontabilitate-fiskalizazioari buruzko txosten hau bidaltzen dugu.

1. Kontuen Batzorde Zentsorearen antolaketa eta helburuak.

Joan den 2017ko ekainaren 17an EH BILDU Federazioaren 1. Biltzarrean egindako estatutu-aldaketak onetsi ondoren ezarri zen kontuen batzorde zentso hau. Biltzarrean bertan izendatu ziren batzordekideak, bozketa izendunez, honako hauek hain zuzen ere:

- Iñaki Ostolaza Esnal
- Lore Agirre Zipitria
- Beñat Amutio Aranceta

Batzorde honen funtzio bakarra estatutuetan ezarritakoa izan da, alegia, gobernu-organoei egiten dituzten eduki ekonomikoko egintzen estatutu-legezkotasuna ikuskatzea eta bermatzea.

Horretarako, batzorde honek dokumentazio honetarako sarbidea izan du:

- Zuzenbidearen mende dauden eta lotura ekonomiko eta finantzarioa duten dokumentu guztiak.
- EH BILDU Federazioaren kontabilitate-liburuak.
- Bankuko saldoak eta egoera-orriak.
- Gobernu-organoei hartu dituzten eta lotura ekonomiko eta finantzarioa duten erabakiak.

Kontuen batzorde zentsoreak, dokumentazio hori guztia eskuratuta, datuak gurutzatuz berrikusi du informazio guztia bidezkoa dela, eta honako hauen betetzea azpimarratu du:

- EUSKAL HERRIA BILDUren kontabilitateak Federazioaren egoera ekonomikoa fideltasunez islatzen duela egiaztatzea.
- Egintza ekonomikoek EH BILDU Federazioaren estatutuak eta arauak betetzea.
- Batzar Nagusiak arlo ekonomikoan emandako irizpenak betetzea, biltzarren artean federazioko organo gorena baita.
- Indarreko legeria, 7/2008 Lege Organikoa nagusiki, betetzea.
- Zuzendaritzako kargudunei eta koalizioaren ordezkari diren kargu publikodunei ezarritako araubide ekonomikoa betetzea.
- Bideragarritasun-planak eta kutzako aurreikuspenak betetzea.
- Zerga-betebeharrak betetzea.

2. Txostenaren irismena

2.1 Diru-sarrerak

EH BILDU Federazioaren diru-sarrerak bi motatakoak dira: pribatuak eta finantzaketa publikoko iturrietakoak.

2.1.1 Diru-sarrera pribatuak.

EH BILDU Federazioak jasotzen dituen diru-sarrera pribatuak BILKIDEEN kuotak eta kargu publikodunen ekarpenak dira.

Batzorde honek egiaztatu du BILKIDEEN kuoten sarrerak zentralizatuta daudela eta kudeaketa zuzenbidearekin bat etorriz eta Federazioaren estatutuen eta erregelamenduen arabera egin dela.

Kargu publikodunen ekarpenak ere zentralizatuta daude dira eta legean ezarritako moduan kobratzen dira, xede horretarako irekitako kontuetan.

2.1.2 Diru-sarrera publikoak

EH BILDU Federazioaren jatorri publikoko diru-sarrerak erakunde publikoetatik datozenak dira eta federazioak erakundeotan duen ordezkartzaren edo hauteskunde-emaizten ondoriozkoak dira.

2020ko ekitaldian zehar EH BILDU Federazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrerako hauteskundeetan parte hartu du, eta beraz ez du hauteskunde-emaizengatik dirulaguntzarik jaso.

Erakundeetako ordezkartzaren ondoriozko diru-sarrerak legebiltzar-taldeek, batzar-taldeek eta udal-taldeek kudeatzen dituzte nagusiki.

Funtzionamendu-gastuetarako diru-sarrera publikoak horretarako xedatutako kontuetan sartu dira.

2.2 Gastuak

Gastuen aurrekontua urtero egiten da eta, ordaindu baino lehen, finantzen arduradunak onesten ditu.

Horrela, alokairu guztiak, kontratu guztiak eta abar behar bezala formalizatu behar ditu EH BILDUko finantzen arduradunak, Federazioko zuzendaritzak onetsitako kontratazio-oinarrietan ezarritakoari jarraituz.

Urteko aurrekontuak EH BILDUko mahai politikoak onesten ditu eta finantza-sailak aurrekontuaren likidazioaren jarraipena bidaltzen dio hilero zuzendaritzari, indarreko hilabetean jasotako fakturen eta egindako gastuen zerrendarekin batera.

Bestalde, toki-erakunde bakoitzak bere aurrekontua dauka esleituta, EH BILDUren estatutuetan eta barne-araudietan ezarritakoari jarraituz, eta askatasunez erabiltzen du aurrekontua. Gastu horien jarraipena lurraldeko koordinatzaileek egiten dute.

2.3 Zerga-kudeaketa

Foru-ogasunekiko harremanak finantzen arduradunaren bidez gauzatzen dira. Horrek esan nahi du zerga guztien aldizkako likidazioak modu telematikoan egiten direla eta ordainketak alderdiak horretarako xedatuta dauzkan banku-kontuen bidez egiten direla.

Zehazki, aurreikusitako epeetan, alderdiak aitorten hauek aurkezten ditu:

- 110 erdua, langileen PFEZaren atxikipena.
- 115 erdua, alokairuen atxikipenak.
- Sozietateen gaineko urteko zerga.
- 347 erdua, hirugarrenetikiko eragiketen urteko erdua.
- 182 erdua, afiliatuen eta kargu publikodunen kuotak.
- 190 erdua, PFEZaren urteko informaziorako erdua.
- 180 erdua, alokairuen atxikipenen urteko informaziorako erdua.

Eredu horien zenbakiak kasuan kasuko foru-ogasunaren arabera alda daitezke.

3. Barne-kontrolerako sistema

Administrazioa, fiskalizazioa eta kontrola.

Haren araubide ekonomikoaren eta ondare-araubidearen administrazioa, fiskalizazioa eta kontrola sistema honi jarraituz egingo dira:

1. Administrazioa. Federazioko administrazio-organismoak arduratzen dira aurrekontuen administrazioaz eta kudeaketa ekonomiko eta finantzario arruntaz, diru-sarreraren kontrolaz, ondare-kudeaketaz eta kargu publikodunen eta kontabilitate-kontuak egiteko arduradunen araubide ekonomikoen jarraipenaz.
2. Fiskalizazioa. Kontuen batzorde zentsore honek administrazio guztia auditatu eta ikuskatuko du, eduki ekonomikoko eskubideak eta betebeharrak sortzen dituzten egintza guztietan kontu hartuko du, berrikuspena burututakoan txosten bat egingo du eta kontuen fiskalizazio zuzena bermatzeko behar diren gomendioak eta doikuntzak ezarriko ditu.
3. Kontrola. Barne-kontrolako txostena egindakoan, Federazioko zuzendaritza politikoak haren edukia aztertuko du eta aurkeztutako urteko kontuak onestea ala ez erabakiko du. Era berean, Kontuen Auzitegiari bakarrik dagokio alderdi politikoen jarduera ekonomiko eta finantzarioa kontrolatzea.

4. Txostenaren ondorioak

EUSKAL HERRIA BILDUren egiturak eta kontrol-ereduak bermatzen dute egintza guztiei egokiro kontu hartzen zaiela eta kontabilizatzen direla, bere estatutuen arabera eta indarreko araudia betez. Hori dela eta, adieraz daiteke 2020. urteko kontuen barne-auditoretza egin ondoren kontuek fideltasunez islatzen dutela ekitaldiaren amaierako egoera ekonomiko eta finantzarioa eta batzorde honek ez duela eskatu aldaketa nabarmenik egiteko, memoriaren 3.11 puntuan eta hurrengo puntuan emandako gomendioetan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe.

5. Gomendioak

Batzorde honek gomendio hauek egin nahi ditu:

- Federazioaren webgunean (www.ehbildu.eus) gardentasunari eskainitako atala hobetzea, informazio ekonomiko eta finantzario gehiago eta Federazioaren jarduera instituzionalari buruzko informazioa jaso dezan.

Donostian, 2020ko maiatzaren 25ean,

Beñat Amutio Aranceta
EH BILDU Federazioko Kontuen Batzorde
Zentsoreko arduraduna